

# Europako Aliantza Librearen (EAL) 2009ko Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetarako adierazpena. Herrien Europaren aldeko ikuspegia

## *(ez Europa populistaren aldekoa)*

**«Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.»**

(Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 1. artikulua)

**«Herri guztiek dute askatasun osoz erabakiak hartzeko eskubidea. Eskubide horri eutsiz, beraien izaera politikoa eratu, eta ekonomia, gizartea eta kultura alorretako garapena bermatzen dute.»**

(Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituneko 1. artikulua (1) eta NBEren Ekonomia, Gizarte eta Kultur Eskubideen Nazioarteko Ituna)

## **Sarrera**

Europako Aliantza Libre (EAL) nortasun handia duten eta Europan beren ahotsa entzunarazi nahi duten nazio, estaturik gabeko nazio eta lurralde erakundeetako hainbat alderdik osatzen dute. **EALek 40 alderdi aurrerakoi biltzen ditu** eta 17 estatu kideetan **dauzka ordezkariak**.

EAL **alderdi Europazalea** da, baina Europa kudeatzeko gaur egungo moduarekin kritikoak gara. Europa demokratikoagoa eta deszentralizatua lortu nahi dugu, baita globalizazioak ezartzen dituen erronkei aurre egiteko hobeto prestatua egotea ere. EALek herrien Europa lortzea espero du. Europa harmoniatua nahi dugu, elkarrekin lankidetzaz jarrerarekin lan egingo duten herri multzo batez osatua. Gure aniztasunaren aberastasuna babestu nahi dugu eta,aldi berean, Batasun sendoago batek eskaintzen dizkigun aukerei etekina atera nahi diegu. Hori lortzeko tresna politikoa **subsidiarotasuna** da, erabakiak hartzeko prozesua herritarrengana hurbiltzen baitu.

Erantzukizunak modu bidezkoagoan eta malguagoan banatu beharra dago, **subiranotasun partekatuko** esparru batean eta, horretarako bidea denek ahotsa eta botoa edukiko duten sistema elkarlotua sortzea da. EBren eta estatu autonomo eta erakundeen arteko bi aldeko lankidetzaz harreman baten alde egiten dugu.

Europako Aliantza Libre 30 urte daramatza **estaturik gabeko nazioen, herrien eta eskualdeen eskubideak defendatzen**. Europako Legebiltzarrerako lehenengo hauteskunde zuzenak egin genituenetik, EALek **autodeterminazio eskubidea eta sorterriko hizkuntzak zein hizkuntza historikoak hitz egiteko eta babesteko eskubidea** defendatu du. Europar Batasunak gaur egun 27 estatu kide eta 23 hizkuntza ofizial dauzka. Haren erakundeetan, orain, katalana, euskara, galiziera, galesa eta Eskoziako gaelikoa ere erabiltzen dira, baina ez dira erabat ofizialak.

Zilegitasun demokratikoa edukitzeak gure kausa geldiezin bihurtzen du. Gure eskubide historikoak erabat gauzatzeko eta gure herritarren gizarte ongizatea zein gure herrialdeetako ekonomiak hobetzeko, Europan ordezkari-tza zentzuduna izan behar dugu. **Herrien Europa behar dugu.**

Elkarren mendekotasuna gero eta handiagoa den mundu honetan, Europar Batasunak eskualdeei eta nazioei dagokien lekua eman behar die. Azken urteetan, bi estatu independente sortu dira: Montenegro (2006) eta Kosovo (2008). Eskoziak, Gales, Katalunia eta Euskal Herria ere autodeterminazio nazionalerako eta Europako mahai nagusian toki propioa lortzeko bidean daude. Herri eta nazio guztiek prozesu politikoan parte-hartze handiagoa izatea da orain gure erronka.

Autogobernua **lortzea, deszentralizazioaren bidez,** eta gure herrien nortasunen aitortzea; horixe da gure borroka politikoaren laburpena. **EALeko kideok estaturik gabeko nazioek, eskualdeek eta estatu txikiak,** denek batera, modu eraginkorragoan lan egitea nahi dugu, Europan erabakiak hartzeko prozesu demokratikoa hobetzeko. **Herrien Europa nahi dugu.** EALek ez du Europar Batasun monolitikorik nahi; hau da, estatu tradizionalak ordezkatu eta benetako boterea estatu kide handien esku utziko duenik.

2009an, EALek bi arlotan egingo du ahalegina. Gure ordezkariak **politika aurrerakoiak** sustatzeko konpromisoa hartu dute. **Gizarte baldintzak** eta bizi-kalitatea hobetzeko ahalegina egiten dugu, baita aberastasunaren banaketa bidezkoagoa lortzeko ahalegina ere. **Garapen iraunkorraren** printzipioa ere defendatzen dugu, ingurune garbi eta energia aldetik independentea izateak pertsonen bizi-kalitatea hobetuko baitu. Gure ideologia bat dator herriek gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat mundu hobea eraikitzeko duten gurariarekin.

Alabaina, gure herrialdeen gaur egungo **egoera konstituzionala** dela eta, ez daukagu Europako estatu kideek daukaten ordezkari-tza maila eta, horregatik, Europan gure etorkizunari eragiten dioten funtsezko erabakiak hartzen direnean, atzean geratzeko arriskua daukagu. Egoera hori oinarri demokratikoen aurkakoa da eta, beraz, erreformatzearen alde lan egiten dugu. Arrazoi horregatik ere estatuen esparrutik kanpo aritzen gara, bai eremu nazionalen, bai eskualde eremuan, eta Europako estaturik gabeko nazioek zein herriek gure etorkizuna erabakitzen duten gobernu maila guztietan ordezkari-tza egokia izan dezaten borrokatzen gara. **Herrien Europa exijitzen dugu.**

Ondoko alderdiek osatzen dute EAL:

*Alands Framtid, Bayernpartei, Bloque Nacionalista Galego, Chunta Aragonesista, Die Friesen, Enotna Lista, Esquerra Republicana de Catalunya, Eusko Alkartasuna, Fryske Nasjonale Partij, Libertà Emiliana-Nazione Emilia, Liga Veneta Repubblica, Ligue Savoisiene, Lithuanian Polish People's Party, Mebyon Kernow, Moravana, Mouvement Région Savoie, Omo Ilinden Pirin, Partei der Deutschsprachigen Belgier, Partido Andalucista, Partit Occitan, Partit Socialista de Mallorca i Menorca Entesa Nacionalista, Partito Sardo d'Azione, Partitu di a Nazione Corsa, Plaid Cymru-the Party of Wales, Rainbow- Vinozhito, Scottish National Party, Silesian Autonomy Movement, Slovenska Skupnost, Sociaal Liberale Partij, Strana Regionov Slovenska, Süd Tiroler Freiheit, Union Démocratique Bretonne, Union du Peuple Alsacien eta Unitat Catalana.*

**Ondoko alderdiek begirale gisa parte hartzen dute:** *Lista Per Fiume, Movimento per l'Indipendenza della Sicilia MIS, MMROP Hungarian Roma Party, ProDG, Renouveau Valdotaine, Südschleswigscher Wählerverband SSW eta Wendische Volkspartei SLS.*

**«Zapaltzaileak ez du inoiz askatasunik ematen bere borrodatez, zapalduak**

**exijitu behar du.»** Martin Luther King

2004-2009 legegintzaldian, gure sei eurodiputatuek (Eskozia, Gales, Euskal Herria, Katalunia, Letonia eta Transilvaniakoak) gogor lan egin dute Europako Legebiltzarrean eta, Berdeekin egindako aliantza parlamentario baten bidez, presentzia esanguratsua izatea lortu dugu. Azken legegintzaldian, EALeko eurodiputatuek ondokoa egin dute:

- **Galesera, katalana, euskara eta galiziera EBko hizkuntza koofizialtzat hartzea** lortu dute.
- **Europako Legebiltzarrak egoitza bakarra** izatearen alde agertu dira.
- Eskualdeen **autonomia fiskala** Europako agendan sartu dute ([www.taxautonomy.org](http://www.taxautonomy.org))
- **Klima aldaketari** dagokionez, Europar Batasunak neurri sendoagoak hartzea eskatu dute. Energia-iturri berriztagarriak Europaren etorkizun energetikoaren ardatz bihurtu dute eta **20/20/20 helburuak** babestu dituzte.
- **Europar Batasunak nazioetako eta eskualdeetako ohiko produktuak** babestea eta **aintzat hartzea** babestu dute.
- **EBko egiturazko funtsen banaketa bidezkoagoa lortzeko kanpaina** egin dute, **atzeratuta dauden estaturik gabeko nazioen eta eskualdeen mesederako.**

Gure lehentasuna Europako herriek beren etorkizuna erabakitzeke eta bakean, demokrazian eta gizarte plural batean bizitzeko dauzkaten eskubideak defendatzea da.

**Europa hobetzeko lanean ari gara: herrien Europa.**

## **1. EUROPA INSTITUZIONALA**

**Nazioei eta estatu izateko bidean daudenei eskumenak ematea.**

EBn erakunde politikoaren kategoria berri bat sortzen ari da: Estatu **izateko bidean daudena**. EBko eskubide politiko eta juridikoak «estatutasuna»rekin lotuta daudenez, gaur egungo estatu kideen barruan dauden nazio historikoak aldaketa bultzatzen ari dira, aitorten osoa lortzearren. Nazio horietako batzuk beren eskubide kolektiboak estatu propioa sortuz lortzeko ahalegina egiten ari dira. Eskozian, Galesen, Euskal Herrian eta Katalunian herri-galdeketa demokratiko bat egiteko eskaria bide horren lehenengo pausoa da.

Estatu izateko bidean daudenek **rol berria izango dute Europar Batasunean**. Europar Batasunak erronka berri hori bere gain hartu beharko du, ekialdera eta Balkanetara hedatu zenean bezala. Prozesu hori normaltasun osoz gauzatu behar da, jarrera bakezale eta demokratikoarekin.

Estatu berriak sortzeak ez dakar bakartze handiagora, aukera gehiago edukitzea baizik. Ikuspuntu demokratiko eta europazaletik, **estatu bihurtzen den nazioak bere herritarrak Europara gerturatzeko dituzte eta gardentasun handiagora eragiten du**. Kontuan hartu behar da estatu berri bat sortzeak ordura arte bere gain zegoen estatuarekin lankidetzaren harreman berriak sortzea dakarrela.

Europar Batasunak **barne hedapena** posible egiteko baldintza politiko eta legegile egokiak sortu behar ditu. Horretarako, Europar Batasunaren eredu gure errealitate mailakatura egokitu behar da. Autodeterminazio eskubidean oinarrituta, **EALeko kideok Europako estatuak dauzkaten erantzukizun guztiak bere gain hartzeko prest dauden**

**nazioen borondatea babesten dugu, baita Europan autonomiak aurrera egitearen alde borrokatzen direnena ere.**

Europako Legebiltzarrean, estaturik gabeko nazioen, **estatu izateko bidean direnen eta estatu kide txikien** arteko aliantza sortu behar da eta haien estrategiak koordinatu. EALek ez du onartzen estatu kide handienek zuzendutako Europa zentralizaturik. Botereen oreka demokratikoa ezartzeko, estatu txikiek, eskualdeek eta estaturik gabeko nazioek elkarlan estuan aritu behar dute, elkartasun zein osagarritasun printzipioetan oinarrituz.

**Europar Batasuna erreformatzeko premia dago.**

Europar Batasunean subsidiarotasuna printzipio eragingarria bada, maila guztietan izan behar du eragingarri, ondorio zuzenarekin. Horrek esan nahi du EBko itunek **gobernu maila ezberdinen arteko elkartze demokratikoa** (EB, estatu kideak eta konstituzionalki autogobernua daukaten erakunde guztiak) bermatu behar dutela. Halaber, **Europako komunitate, herri eta herrialde guztiek Europako erakundeetan modu eraginkorrean parte hartzeko** eskubidea izan behar dutela esan nahi du.

Hain zuzen, subsidiarotasun printzipioa aplikatzeko asmoarekin, EALek ezinbestekotzat jotzen du **parlamentu nazionalek eta eskualdeetakoek Europako erabaki-hartze prozesuan parte hartzea**, erkidegoko legedia zehatz aztertuta eta estatu kideetako gobernuek Kontseiluan parte hartuz.

Funtsezkoa da EBko erakundeak erreformatzea —baita Legebiltzarra ere— **erabakiak hartzeko prozesua irekiago eta gardenago** bihurtzeko. Eskualdeen Batzordea indartu eta erreformatu egin beharko da, Eskualdeen Senatu bihurtzeko. EALek Europa demokratizatu egin nahi du. Horretarako, herritarren parte-hartzea indartu nahi du, Europako Batzordeko presidentea zuzenean aukeratuz. Tokiko, eskualdeetako eta nazioetako legebiltzarrei Europarako araudiak eta legeak onartu aurretik (batez ere, gutxiengoak edo hizkuntza gutxituak dauzkaten eskualdeei eragiten badiete) kontsulta egin behar zaie; legeak sortzeko prozesuaren hasieran, hain zuzen. Legeak onartutakoan, herritarrek, enpresek eta Europako eskualdeetan jarduten duten erakundeek lege horiek ezagutzea eta onartzea sustatzeko neurriak hartu behar dira. EB hedatzen jarraitzea ez da ez desiragarria, ezta komenigarria ere, aurretik beharrezko erreformak egiten ez badira.

Europako esleipen sistemaren ebaluazioa egin beharko litzateke. Sistema horrek dakartzan burokrazia, prozedura konplikatuak, eskatzen duen denbora eta prezioetan duen eragina oso kritikatuak izan dira.

**Europa sozial baterantz.**

Europako eredu soziala indartu behar da, **elkartasunean** oinarritutako Europako gizarte ereduaren zimendu gisa: **kalitatezko enplegu betea bultzatu behar da, sexuen arteko berdintasunean oinarritua, laneko inguru seguru eta osasungarrian eta interes orokorreko zerbitzu unibertsalak eskura jarritz.** Europar Batasunak **agenda soziala berritu** behar du, EBn **bazterketa modu oro erauzteko** benetako neurrien eta tresnen bidez. Ondoko zuzentarauak horren adibide egokiak dira: mugez gaindiko osasun laguntzari buruzkoak, lanari buruzko zuzentarau bat, interes orokorreko gizarte zerbitzuei buruzko zuzentarau bat eta ijitoen komunitateari buruzko auzien inguruko mugez gaindiko ekimenak.

Orain inoiz baino gehiago, kapitalen merkatuen munduko krisiaren eraginez, **funtsezkoa da Europak herritarrak babestea, gizarte arloko gutxieneko neurriak handituz** eta herritarrek araudia (beharrezkoa den sektoreetan) negatibotzat jo ez dezaten ahaleginduz, Europako Batzordearen erabakiekin, zoritxarrez, askotan gertatzen den bezala. Jendea gaizki pasatzen ari da, kontsumorako prezioen igoerak, erregaien prezioak eta higiezinak

merkatuko arazoen eraginean; kredituaren krisia baliabide ekonomikoak dituztenen eta eguneko bizi behar dutenen arteko aldea handitzen ari da. Europako Banku Zentralak (EBZ) **kontrol zentralerako tresnak** eta esku-hartze zentralerako aurrekontua eduki behar ditu, krisi ekonomikoak saihesteko eta konpontzeko.

Sexuen arteko berdintasunaren aldeko neurriak hartuz, lan merkatuak emakumei irekitzea bultzatu beharko litzateke. Interes orokorreko zerbitzuak irekiagoak izan behar dira; bereziki, baliabide gutxien dauzkaten pertsonentzat. Uraren prezioa handitzeak — zenbaitetan, % 300era iritsi da eta, bitxia iruditu arren, kasu batzuetan pribatizazioaren eraginez gertatu da— onartezina da. Guztiok daukagu ur garbia arrazoizko prezioan eskuratzeko eskubidea. Europar Batasunak nazioarteko eremuan berme handiagoak eskatu behar ditu: merkatuaren fundamentalismoa onartu beharrean, **finantza merkatuetako iruzurrak eta egonkortasuna gehiago kontrolatu behar dira.**

Erkidegoan, **helburu lotesle multzo bat hitzartu behar da, bai kuantitatiboak, bai kualitatiboak.** Europarako gizarte egonkortasunerako hitzarmen bat ezarri behar da, ondoko helburuak lortzeko: enplegu betea, bidezko soldatak, gizarte ongizatea, gizarte berdintasuna, sexuen arteko berdintasuna, kultur aniztasuna eta ingurumen iraunkortasuna.

## 2. HIZKUNTZA ANIZTASUNA ETA ESKUBIDEEN BERDINTASUNA

### **Kultur errespetua eta aniztasuna.**

UNESCOren arabera, mende honen bukaeran, munduko 6.000 hizkuntzetako asko arriskuan egongo dira eta desagertzea oso litekeena izango da. Beraz, Europar Batasunak «**aniztasunean oinarritutako batasuna**» aitortu eta praktikan jarri beharko du, **herrien errealitateak errespetatuz;** bereziki, estaturik gabeko nazioena eta hizkuntza eta historia propioaz gain, gizarte eta ekonomia ezaugarri bereziak zein helburu politikoak dauzkaten eskualdeena. Europar Batasunak estatuetan oraindik ere nagusi den pentsamolde teknokratiko eta zentralista gainditu behar du.

EBko **hizkuntza guztien aitortzea** lortuz bakarrik izango da posible hizkuntza aniztasunaren irudikapen fidela eta **demokrazia linguistikoa.** Estatuak hizkuntza ofizialak erabiltzeko duten eskubide bera izan behar dute estaturik gabeko nazioek eta eskualdeek beren hizkuntzak erabiltzeko. Modu horretan, beren hizkuntzei **EBko hizkuntza ofizialen eskubide berberak ukatu ahal ez izatea lortuko da.** Halaber, Europar Batasuneko politikek kultur aniztasuna **sustatu** behar dute estaturik gabeko nazioetako eta hizkuntza gutxiak dituzten **eskualdeetako** telebistan, komunikabideetan, zinemaren industrian, Interneten, hezkuntza arloan eta irratian. Hizkuntza gutxiak hainbat programatan berdintasunez erabiltzeko aukera izan behar da, adibidez: etengabeko prestakuntzarako programetan.

«**Hizkuntza guztiak askeak dira eta, berdinak, duintasunari zein eskubideei dagokienez.** Hizkuntza nazional gutxituek, zabalpen txikiko hizkuntzek, gutxiengo historikoen hizkuntzek eta gehiengoak erabiltzen dituen eskualde-hizkuntzek... guztiak daukate estatuen hizkuntzen eskubide berberak». EALek eskatzen du NBEk 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean oinarritutako **Hizkuntza Eskubideen Adierazpena** egiteko.

Gure herriko hizkuntzan eskariak eta galderak egiteko eskubideak demokrazia indartzen du eta boterearen gardentasuna lortzeko elementu garrantzitsua da.

Pozgarritzat jotzen ditugu katalanak, euskarak, galizierak eta galesak EBko hizkuntza

koofizial estatutua izatea ziurtatzeko emandako aurrerapausoak. Lorpen horretan oinarrituta, hizkuntz ofizialtzat jotzea lortu nahi dugu. Izan ere, Europako hizkuntz historikoak dira eta baldintza sozial zein profesional askotariko milioika pertsonak erabiltzen dituzte egunero, bai etxean, bai lanean. Bada garaia zenbait hizkuntzak (alemana, ingelesa, suediera eta maltera) dauzkaten aukerak, eskubideak eta pribilegioak gaur egun koofizial estatusa daukaten hizkuntzei aitortzeko.

**«Ekoaniztasuna zaintzearen alde bezain sendo egiten dugu hizkuntzen pluraltasuna, aniztasuna eta aberastasuna zaintzearen alde. Hizkuntzak errealitatea eraikitzeo kultur baliabideak dira, ez informazioa zabaltzeko tresna hutsak. Gizateriaren funtsa kultura da eta, arlo horretan, hizkuntzak desagertzea biologiaren arloan bioaniztasun elementuak galtzearen parekoa da.»**

(Bernat Joan i Marí, *Ecolinguistics*)

EALek hezkuntza eleanitza sustatzen du. Horretarako, ondoko baloreak babesteko programak bultzatzen ditu: kulturantzatasuna, goi-hezkuntzan hizkuntza gutxituak presente egotea eta hizkuntza gutxituen eremuko langileen zein ikasleen trukea.

Etengabeko prestakuntzarako programak ebaluatu behar dira eta, horren barruan, programa horiek gutxien erabiltzen diren hizkuntzetan zer eragin duten. Hizkuntza gutxituetarako dirulaguntzak ezartzea ezinbestekoa da gutxien erabiltzen diren hizkuntzek berdintasunezko tratua izan dezaten.

**«Europar Batasuna pertsonen eta komunitateen zerbitzura dago, ez alderantziz!»**

Nelly Maes

### 3. EUROPARAKO ENERGIA

#### **Iraunkortasuna: ingurumena eta energia.**

Iraunkortasuna gure estrategia politikoaren funtsezko elementua da, bai kulturaren eta hizkuntzaren arloan, bai ingurumen arloan. **Europa iraunkorra izatea nahi dugu eta horren barruan komunitate iraunkorrak garatu.**

Klima aldaketaren aurkako borroka Europaren lidergoaren adibide bihurtu da. **Nazio Batuen Erakundea 2009ko azaroan, Kopenhagen, egitekoa den klimari buruzko goi-bileran,** Europak lidergo horri eusteko borondatea duela frogatu beharko du. Europako Batzordeak berrikuntzen sektorean lehiakortasuna sustatu behar du eta I+G energia berriztagarrien sektorean. Europa etorkizuna aurreikusteko gai baldin bada, ezin du onartu atzeraldi ekonomikoak eta moneta zein finantza krisiak klima aldaketa bigarren mailan uztea.

Energia nuklearrari dagokionez, EAL **energia nuklearraren aurka** dago, argi eta garbi, eta European pixkanaka energia nuklearra erabiltzeari uztea nahi du. Erkidegoaren energia politikak bi ardatz izan behar ditu: batetik, energiaren eraginkortasuna eta independentzia sustatzea; eta, bestetik, energia berriztagarrien erabilera handitzea. **EURATOMi ez, EURENEWri bai. EALek energia berriztagarriei buruzko itun bat egiteko eskatzen du.**

Europar Batasunak klima aldaketaren eta itsasoaren mailaren igoeraren eragin handia izango duten kostaldeko eta delten inguruko gunetan inbertitu behar du, baita mendi inguruetan eta ingurumenaren ikuspegitik klima aldaketaren aurrean kalteberak diren beste

gune batzuetan ere.

Europak Kyotoko Protokoloaren eta Baliko prozesuaren aplikazioan buru izaten jarraitzen du; AEBek, berriz, (CO2 gehien isurtzen duen herrialdea) duela gutxi sinatu zuten. Dena den, lan asko dago egiteko. Ezinbestekoa da pertsona bakoitzeko 4,8 hektareakoa den **Europako aztarna ekologikoa** 1,8 hektarea baino gutxiagora murriztea, munduko ekosistemari arrisku handiagoa ez eragiteko. Europar Batasunak **kontsumo iraunkorrean** lider izan behar du.

### **Ekonomia: etxebizitza, garraioa eta turismoa.**

EBk lan handiagoa egin dezake etxebizitzaren alorrean, egiturazko funtsak hobeto erabiliz. Soldata txikiena daukaten pertsonen etxebizitza arazoez arduratzeaz gain, **isolamenduari, energia aurrezteari eta etxebizitza pasiboari lotutako neurriak** hartzea aktiboki sustatu behar dugu. Gainera, kontuan hartu behar dugu EBk beste gobernu maila batzuei etxebizitza sozialak eskuratzen eta behar handiena dutenei etxebizitza merkeagoak eskaintzen lagun diezaiekeela.

Herritar guztientzako enplegu bete lortzeko helburua babesten dugu, bereziki, eskualdeen **garapenari eta** industria zaharrak birmoldatzeari begira. Ordezkaritza txikiegia daukaten taldeentzat (adibidez: baliabide gutxi dauzkan jendearentzat edo minusbaliatuentzat) hezkuntza sistema eta trebakuntza aukera espezifikoak eskaini beharko genituzke, lan merkatura sartzeko aukera gehiago izan ditzaten eta haien gizarte mugikortasuna handitzeko.

Gizarte enpleguaren sektorea gehiago gara daiteke, gure komunitateetarako lanpostu erabilgarriak eta premiazkoak sortzeko.

### **Mugikortasuna**

EBn mugikortasun fisikoa hobetu behar da, Europaren barruko sareak sortuz (EBS). EALek **garraiobide iraunkorrako erabilteak defendatzen du eta gastuei** «kutsatzen duenak ordaintzen du» printzipioan oinarrituta aurre egitea. Turismoaren sektorea (ekonomikoki garrantzi handikoa) turismo iraunkor **bihurtu behar da.**

### **Jaten duguna gara.**

Elikagaiak helburu komertzialekin ekoizteko genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) lantzearen aurka gaude. Inportazioari begira, etiketatze eta arrastoa jarraitzeko legedi zorrotzagoa **sortzearen alde gaude.** Epe laburrean, Europar Batasunak **transgenikorik gabeko eskualdeak eta guneak** aintzatesi eta garatu behar lituzke. Europako herritar gehienek errefusatu egiten dituzte transgenikoak. Ondorioz, ez da elikadura osasun kontua bakarrik, baita **zer jan erabakitzeko eskubide demokratikoa eta pertsonen eskubideak onura ekonomikoaren ginetik jartzea ere.**

### **Europako urdaila: elikagaiak, nekazaritza eta arrantza.**

EBk landa garapen iraunkorra eta landa komunitate bideragarriak sustatzeko funtsezko rola bete behar duela aintzat hartzen dugu. Ildo horretan, elikagaien ekoizpena, nekazaritza eta arrantza funtsezko sektoreak dira eta EBren babesa jasotzea merezi dute.

Nekazaritza Politika Komuna (NPK) erreformatu beharra dago. Beraz, gaur egun martxan dagoen berrazterketa babesten dugu. Erkidegoko diru-laguntzak **nekazari txikien, familiako nekazaritza ustiapenen eta arrantzale komunitateen** esku egotea funtsezkoa da, haiei etorkizun bideragarria bermatzeko. Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza iraunkorrak aurrera egin dezakete eta garrantzitsuak izan daitezke elikagaien

kalitatea, segurtasuna eta erreserbak arriskuan jartzen dituzten gaur egungo erronkei aurre egiteko. EBri bere politiketan animalien ongizatea gehiago zaintzeko eskatzen dio EALek.

Bioerregaiak ekoizteak ez du elikagaiak ekoiztea eragotzi behar. Gure lehentasun nagusia **herriar guztiak kalitatezko elikagaiez hornitzea da.**

**Landa-guneen garapena** eta turismoa bateragarriak izan behar dira. EALek **kalitatezko produktuak, eskualdeko eta tokiko elikagaiak eta «slow food» kontzeptua** erabiltzea sustatzen du, «**elikagaien kilometraje»rako irtenbide gisa**. Ezinbestekoa da barne merkatuan kontsumitzaileak babesteko arau zorrotzagoak ezartzea, ohiko, eskualdeko eta tokiko elikagaien ekoizpena oztopatu gabe.

**Europaren etorkizuna ezagutzan, ikerketan eta berrikuntzan oinarritzen da.**

Nekazaritza, energia eta garraio sektoreak berritzea Europa etorkizun iraunkorragora eramateko indar bultzatzailea da. Berrikuntza funtsezkoa da lan merkatua suspertzeko eta Europak industriren gainbeheraren edo deslokalizazioaren erronkari aurre egin ahal izateko. Sektore eta teknologia berriek Europaren etorkizunerako bidea ireki dezakete, Europa kontinente sozialagoa, iraunkorragoa eta ekonomikoki buruaskia bihurtzeko indar bultzatzaile gisa erabiltzen baldin badira. Garapen iraunkorra bultzatzen dugu, ikuspuntu ekonomikoan eta ekologikoan oinarrituta, betiere, gure baliabideen eta gure komunitateen premien arabera.

#### 4. or EUROPA MUNDUAN

##### **Atzerri eta segurtasun politika bateratua**

Atzerri eta segurtasun politikaren helburua **gatazkak saihestea** eta komunitateak garatzea da. Negoziazioen bidez Ekialde Hurbilean eta gatazkan dauden beste toki batzuetan bake iraunkorra lortzea ezinbesteko baldintza da munduan bakea eta egonkortasuna lortzeko. Terrorismoa desagerrarazteak ez du giza eskubideen errespetua arriskuan jarri behar. Halaber, funtsezkoa da **armen esportazioari buruzko itun bat** egitea eta **armen salerosketari buruzko jokabide-kode lotesle bat** ezartzea. EBk arma kimikoak eta biologikoak erabiltzeari uzteko bultzatzen dituen ekimenak babesten ditugu, baita lukubonben eta masa suntsiketarako beste armen kontrakoak ere. EALek energia atomikorik gabeko Europa babesten du.

EALek EBri eta bere estatu kideei eskatzen die ziurgabetasunean eta etengabeko aldaketetan murgilduta dagoen mundu batean desmilitarizatu eta neutral izaten jarraitzeko konbentzimendu eta erabaki sendoa daukaten eskualde eta nazio desmilitarizatu eta neutralak onartzeko, indartzeko eta errespetatzeko.

##### **Migrazioa**

Aitortzen dugu migrazioak Europari arlo sozialean, kulturean eta ekonomikoan urte askoan egin dion ezin eskertuzko ekarpena eta etorkizunean ere ekarpena egiten jarraituko duela uste dugu. Migrazioa gizakiaren bizitzan prozesu naturala dela uste dugu eta gure mesederako da EBk migrazioa ahalik eta modu eraginkorrenean kudeatzea.

Halaber, aintzat hartzen dugu Europan asilo eta immigrazio arloetan lankidetzak handiagoa izateak onura komun potentzial asko eragiten dituela, eta Europak laguntza handia eman dezakeela migratzaile berriak integratzeko. Integrazio horren barruan, estaturik gabeko nazioen hizkuntzak bereganatzea ere barne hartzen dugu.

Pentsatzen dugu, era berean, pertsonen asiloa bilatzeko eskubidea babestu eta defendatu



behar dugula eta jazarriei aterpea eskaintzeko tradizio europar zintzoari eutsi behar diogula.

### **Garapen bidean dauden herrialdeekin elkartasuna.**

Munduan 1.200 milioi lagun baino gehiago egunean 1 € baino gutxiagorekin bizi direnez, **Nazio Batuen Erakundeko Milurtekoko** zortzi **helburuak** lortu nahi ditugu, baita Johannesburgeko konpromisoak bete ere. Bakea eta justizia lortzeko, txirotasunaren eta gosearen aurka borrokatu behar gara, jende guztiari lehen hezkuntza eta osasun artatzea jasotzeko aukera eman behar diogu (arreta berezia jarriz hiesaren aurkako borrokari), emakumeen eskubideak aitortu behar ditugu, sexuen arteko berdintasunaren aldeko neurriak hartu eta, azkenik, harreman globalak sortu.

EALek kanpoko laguntzari dagokionez, ikuspegi hau babesten du: **merkataritza politika justuagoak ezartzea, garapen bidean dauden herrialdeei ahalmen handiagoa emateko** ; gizakien trafikoari aurre egiteko neurriak hartzea; eta, migrazioak sortzen dituen erronkak eta aukerak kudeatzea. Europako atzerri politikaren testuinguruan, Europak bake operazioetan eta gatazken prebentzioan inplikazio handiagoa izatearen alde ere egiten dugu. Funtsezkoa da EBn bakeari eusteko indar bat sortzea, munduan bake iraunkorra lortzeko. EALek Afrikarako inbertsio programa bat sortzea defendatzen du, eguzki-energia modu eraginkorrean erabil dezaten. Hala, herrialde horiek petrolio ekoizleekiko mendekotasun txikiagoa izango dute.

Garapenerako aurreko laguntzekin gertatutako akatsak ez errepikatzeko, erakundeek (EB, estatuak, GKEak, eta abar) ezarritako neurrien arteko koherentzia handitu behar da. Ezinbestekoa da **harreman estua izatea eta sinergiak sortzea garapenaren eta segurtasunaren artean, garapenaren eta migrazioaren artean**, garapenaren eta ingurumena babestearen artean eta merkataritzaren eta garapenaren arteko integrazioa. Giza eskubideei dagokienez, erabat lortu behar da hori, modu eraginkorrean eta gardenean, eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko sinergia sortu behar da.

Garapen programek herritarren kultur sustraiak sakon errespetatu behar dituzte eta garapen bidean dauden herrialdeek, berriz, giza eskubideak. **Lege humanitarioak ezartzea mundu bidezkoa eta berdina sortzeko muina da.** Potentzia ekonomiko bihurtzen ari diren herrialdeetan, Txinan adibidez, giza eskubideak urratzearen aurka gaude erabat.

Zure botoak Europako Legebiltzarrean ondorengo gai kritikoak aldarrikatzen jarraitzeko aukera emango digu:

### **2009ko EBrako bederatzi proposamen**

- 1. Armen esportazioari buruzko jokabide-kode loteslea eta armei buruzko ituna**
- 2. Europako kostak, mendi inguruak eta ingurumenaren ikuspegitik kalteberak diren beste gune batzuk babesteko baliabide ekonomiko gehiago**
- 3. EBko erakundearen erabateko erreforma eta demokratizazioa**
- 4. EBko hizkuntza gutxituen eskubideen gaineko legedia, sektore pribatua ere barne hartuta**
- 5. Elikagaien tokiko hornikuntza sustatzeko Europako legedia**
- 6. Euratomen ordezkari Eurennew ezartzea**
- 7. Europaren barneko unibertsitate trukeak gaur egungoak halako 10 izatea (Erasmus ikasleak % 2 izan ordezkari % 20 izatea)**

**8. Berrikuntzan, ikerketan eta garapenean inbertsio gehiago egitea, Lisboako helburu estrategikoak lortzeko**

**9. Eskualdeek egiturazko funtsen arloan erabaki bateratuak hartzea**

- Energia-iturri berriztagarrietan inbertsio gehiago egitea
- Langileen zapalkuntza saihesteko legedia Txirotasunari eta etxebizitza faltari aurre egiteko Europako funtsak Garapenerako laguntza handitzea
- Gizakien trafikoaren aurka borrokatzeko neurriak
- Bakeari eusteko erkidegoko indar bat sortzea
- Organo emaileen Europako agentzia sortzea, organoen donazioa koordinatzeko
- Hizkuntza gutxituak hitz egiten dituztenen artean, kultur, hezkuntza eta lanbide trukaketak sustatzeko programa sortzea
- Europako Legebiltzarrerako bi egoitza edukitzeko beharra ezeztatzea Migratzaileak azkar integratzea, eskualdeko hizkuntza erabiliz eta lan egoera hobetuz, zapalkuntza eta bazterketa saihesteko Ingurumen aldetik kalteberak diren guneetan zirkulazioaren eragina murriztea Interneten nabigatzeko baldintzak erraztea (Europak telefonia mugikorretako tarifetan esku hartzeko planaren bidez)
- EBko ikastetxeetan eta unibertsitateetan osasunari eta elikadurari buruzko kanpainen sorrera sustatzea (ikastetxeetan fruta doan kontsumitzeko plan bat barne)
- Mugaldeko eskualdeetan lurralde erakunde komunitarioak sortzea Mugaz haraindiko garraio azpiegiturak gehitzea
- Landa-inguruen husteari aurre egiteko eta inguru horietan inbertsioak eta garapena sustatzeko Europako programak sortzea

Bartzelona, 2009ko maiatza.